


Martxoaren 22a, Uraren Munduko Eguna

EAEko 30 urtetik beherako gazteen %71 uraren kontsumoa murrizten saiatu ohi dira

Gazteen Euskal Behatokia kontsumo jasangarriari buruzko ikerketa bat burutzen ari da (kaleratu gabea, oraindik). Ikerketa horren emaitzetatik abiatuta, esan dezakegu EAEko 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik zazpi uraren kontsumoa murrizten saiatu ohi direla. Aitzitik, %10ek ez dute hori inoiz edo ia inoiz egiten. Gainerakoek batzuetan bakarrik betetzen dute jarraibide hori.


20 eta 29 urte bitartekoek adin horretara heldu ez direnek baino neurri handiagoan jarraitzen dute portaera hori. 20 urtetik beherakoek artean, aldiz, laurdenek batzuetan bakarrik hartzen dituzte uraren kontsumoa murrizteko neurriak.



Jatorrizko familiaren etxetik kanpo bizi direnak neurri handiagoan saiatzen dira uraren kontsumoa murrizten, gurasoen etxean jarraitzen dutenak baino.

Hiriburuetan eta 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, herri txikietan baino hedatuago dago uraren kontsumoa murriztearen ohitura gazteengan.

Uraren kontsumoa murrizten saiatzen diren gazteen ehunekoa, udalerriaren neurriaren arabera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2010

Edozelan ere, gazteen gehiengo zabalak, %92k, aurrerantzean uraren kontsumoa murrizteko prest daudela diote.